



Arartekoaren 2017S-1315-16 Ebazpena, 2017ko urriaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio bultza dezala ingurumen-ebaluazioaren legedia betetzea hirigintza-antolamenduko planak izapidetzean

Aurrekariak

1. Pertsona batek, (...) elkartearen izenean, kexa jarri zuen Ararteko erakundearen, ez zaiolako erantzun Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrean egindako kontsultari. Hirigintza-planen gaineko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko arauditik eratorritako betebeharrak betetzeari buruzkoa zen kontsulta, Donostiako Udalari zegokionean.

Zehatz-mehatz, elkarteak adierazi zuen ingurumen-organo horren esku-hartzea eskatu zuela 2016ko apirilaren 25ean, hark zehaztu zezan Donostiako hirigintza-antolamenduko plan orokorraren aldaketek (... eremuetan) ingurumen-ebaluaziorako legedia arautzen duen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiten duen izapidea pasa behar ote duten.

Erreklamazioan azaltzen zenaren arabera, Donostiako Udalak ez zuen uste HAPOaren aldaketak eragin nabarmenik izango zuenik ingurumenaren gainean, eta, hortaz, ez zuen uste beharrezkoa zenik aldaketa hori ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozeduraren mende jartzea.

Hala ere, elkarte kexagileak azaltzen zuenez, ingurumen-araudiak ingurumen-organoaren irizpean jartzen du kontu hori; kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren irizpean, eta ez udalaren irizpean.

2. Erreklamazioari dagokion izapidea emateko xedez, elkarte horrek egindako eskaerari erantzuteko jarraitu ziren jardueri buruzko informazioa eskatu zion Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari.

Era berean, Arartekoak informazioa eskatu zuen ingurumen-organo horrek duen irizpideari buruz, hirigintza-antolamenduko planen eta lurralde-eremu murriztuko esparruen erabilerak ezartzen dituzten planen aldaketa txikiak ingurumen-ebaluaziorako prozeduraren mende jartzeko beharra dagoen zehazteari





dagokionean, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura erregulatzeko duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotzen diren aurreikuspenak eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea kontuan hartuta.

Azkenik, informazioa eskatu zuen EAEko legedia 21/2013 Legearen azken xedapenetatik hamaikagarrenean jasotzen diren erabakiei egokitzeko dauden aurreikuspenen inguruan.

3. Orduan, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila zenak txosten bat bidali zuen 2016ko uztailaren 26an, kontu hauek azalduz:

"Con fecha de 18 de julio de 2016, se ha comunicado a la Asociación (...) que tanto en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental como en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente se establecen los trámites necesarios para el inicio de los procedimientos de evaluación ambiental estratégica, y que, a la vista de los términos en los que se expresa su solicitud y de la documentación que la acompaña, no puede entenderse que la misma contenga una petición de iniciación de ninguno de los procedimientos de evaluación ambiental estratégica cuya resolución es competencia de este órgano".

En este sentido, teniendo en cuenta que mediante dicho escrito se formula, más bien, una consulta sobre la aplicación de la Ley en materia de evaluación ambiental estratégica, se ha informado a la citada Asociación que se dará cumplida respuesta a su solicitud en el plazo más breve posible.

Por otra parte, para determinar la necesidad de someter a evaluación ambiental estratégica determinados planes y programas, este Órgano Ambiental sigue el procedimiento establecido en los artículos 29 y ss. de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. Los criterios que se aplican en dicho procedimiento son los contemplados en el Anexo V de la citada norma.

Por último, en lo que se refiere a la aplicación de la normativa en materia de evaluación ambiental, este Órgano Ambiental viene aplicando la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, desde su entrada en vigor, así como las disposiciones adicionales de protección del medio ambiente contenidas en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, y en su normativa de desarrollo."





4. Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak elkarteak egindako eskaerari emandako erantzunaren berri eman zion elkarte kexagileak Arartekoari. 2016ko uztailaren 18an jaso zen erantzun hori. Idazki horretan, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren gaietan legea ezartzeari buruzko kontsultatzat jo zen elkartearen nahia. Bidalitako komunikazioan, hau adierazten zen: *"se dará cumplida respuesta a su solicitud en el plazo más breve posible"*.

Edonola ere, adierazi beharra dago 2016ko uztailaren 21eko udal-erabakiaren bidez onetsi zela Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa zehatza behin betiko, eta 2016ko abuztuaren 24ko GAOn argitaratu zela. Ebazpen horren aurka, (...) Elkarteak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen 2016ko urriaren 28an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, eta 2016ko azaroaren 17ko GAOn argitaratu zen.

Informazio hori eta kexaren egileak alegatutako gainerako inguruabarrak ikusita, eta horren edukiak aztertu ondoren, gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut:

Gogoetak

1. (...) Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrean aurkeztu zuen erreklamazioaren ondoriozkoa da aipatu kexa. Ingurumen-organoa zen heinean aurkeztu zuen elkarteak erreklamazioa sail horren aurrean, hark zehaztu zezan Donostiako hirigintza-antolamenduko plan orokorraren aldaketarako (... eremuetan) aurreikusita dauden ingurumen-ebaluazioa eta paisaia-balorazioa eskatzea.

Kasu horretan, Donostiako Udalak ez zuen bideratu HAPOaren aldaketari zegokion izapidea, ingurumen-ebaluazio estrategikoari begirakoa (ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio ere esaten zaio).

2. Auzi honen azterketa juridiko egokia egiteko, kontuan hartu behar da ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko arau-multzoa.





Kasu honetan, hizpidera ekarri behar da Europar Batasunak plan eta programen ingurumen-ebaluazioari begira darabilen estrategia, horixe izan baita, dudarik gabe, hiri-antolamendurako tresnetan ingurumen-aldagaia sartu izanaren eragilea.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko ekainaren 27ko 2001/42 (EE) Zuzentarauak (zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoak) ezartzen duenez, ingurumen-ebaluazioa egin behar zaie hiri- eta landa-lurraldearen antolamendua eta lurzoruaren erabilera bezalako gaiari buruz egiten diren plan eta programa guztiei. Zuzentaru horren 3. artikuluan -5. eta 6. zenbakiak- prozedura zehatza jaso da, ingurumen ebaluazioa behar duten planak zeintzuk diren erabakitzeke, kasuz kasu, edo plan motak aipatuz. Horretarako, ingurumenean izan ditzakeen ondorio larriak kontuan hartu behar dira, planaren eta haren ondorioen ezaugarriari buruzko zenbait irizpiderekin eta antolamendu tresnaren eragin posiblearen guneko (II. eranskina) ezaugarrien irizpideekin bat etorriz.

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak -1999ko irailaren 16ko epaia; C-435/97 World Wildlife Fund auzia- Europar Batasuneko kide diren estatuek duten balioespena zehaztu du, planak ingurumen-ebaluazioa egitetik salbuesteko. Horrela, ikuspegi murriztailetik begiratuta interpretatu behar da aukera hori. Bestalde, behin dagozkion autoritateei kontsulta eginda hartu behar da aukera hori, eta pertsona orori eman behar zaio aditzera, arrazoiekin batera, plan zehatzaren gaineko ingurumen-ebaluazioa eskatu ez dadin.

Espainiar estatuak 2001/42/EE Zuzentaruak sartu zuen bere ordenamendu juridikora, plan edo programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen bidez, lege horren 3. eta 4. artikuluetan arautzen baita kontu zehatz hori. Arau horrek, 3. artikuluan, ingurumenari inpaktu larria sortu ahal dioten plan eta programa guztietan inpaktua ebaluatu behar dela ezartzen du, hiri- eta landa-lurralde antolamenduaren edo lurzoru-erabileraren jardun-esparrukoak badira plan edo programa horiek.

Garrantzitsua da erkidegoko zuzentaruaren araubide juridikoa aipatzea. Tresna bitxi horrek baliabide-askatasuna ematen du zuzentaru horiek estatu kideen barne-mailako zuzenbidean txertatzeko orduan. Hala ere, txertatzeko epearen barruan lortu behar dute eskatzen den emaitza; kasu honetan, 2004ko uztailaren 21ean amaitzen zen epe hori. Nolanahi ere, Europako Erkidegoetako





Justizia Auzitegiak –1991ko azaroaren 19ko Epaia; C-6/90 eta C-9/90 Francovich auziak— epean txertatu ez diren xedapen baldintzarik gabe eta zehatzek duten zuzeneko ondorioa onartu du, bai eta eskatutako emaitzarekin bat egiten ez duten neurri aukeratuen ondorioa onartu ere. Era berean, 2004ko urtarrilaren 7ko epaian - Delena Wells C 201/02 auzia-, auzitegiak lankidetzan leialaren printzipioarekin bat etorritik ezartzen du Europar Batasuneko kide diren estatuek erkidegoko zuzenbidearen kontrako neurriak ezabatu behar dituztela: *"En virtud del artículo 10 CE, las autoridades competentes están obligadas a adoptar, en el marco de sus competencias, todas las medidas generales o particulares destinadas a subsanar la omisión de la evaluación de las repercusiones de un proyecto sobre el medio ambiente"*.

3. Kontu horri dagokionez, Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea Europako legediari egokitu behar zaizkiola adierazi izan du Ararteko erakundeak.

Hori dela-eta, erakunde honek gai horri buruzko gomendio orokor bat egin zuen 2008an, Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako urteko txostenean (http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1639_1.pdf), Euskal Autonomia Erkidegoan izapidetzen diren hirigintza-ordenamenduko plan ezberdinen ingurumen-ebaluazioa egiteko beharrari buruz. Era berean, 2009ko abenduaren 23ko Ebazpenean ere gai hori azpimarratu zuen. (http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1771_1.pdf)

Arartekoak gomendio horietan azaltzen zuenez, 2001/41/EE Zuzentaraua eta orduko 9/2006 Legea zuzenean ezar daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan, egiturazko hirigintza-antolamendu xehakatuaren planetarako, baldin eta plan horiek ingurumenean eragin nabarmena izan badezakete eta haien prestatzeko lehenengo egintza formala 2004ko uztailaren 21a baino geroagokoa bada. Ebaluazio hori egitetik salbuetsi daiteke, Zuzentarauaren 3. artikuluan eta 9/2006 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako prozedurarekin bat etortzen denean bakarrik. Horietan, beharrezkoa da ingurumen-administrazioaren berariazko erabaki publikoa egotea.

Hori dela-eta, 2/2006 Legea (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa; 97. artikulua zehazki) eta 3/1998 Lege Orokorra (otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa; I.a. eranskina) erkidegoko zuzenbide-araubidera egokitu behar direla adierazten zuen





Arartekoak, beren xedapenei zegokienean. Landa- nahiz hiri-esparruari eragiten dieten eta ingurumenean ondorio nabarmenak eduki ditzaketen plan guztien gaineko ingurumen-ebaluazioa arautzen du erkidegoko zuzenbide-araubide horrek.

4. Horri dagokionez, adierazi beharra dago Eusko Jaurlaritzak urriaren 16ko 211/2012 Dekretua onartu zuela. Horren bidez, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen da. Dekretu horrek ezartzen duenez, banaka aztertu behar dira kasu guztiak, ebaluazio horren pean utzi behar ote diren zehazteari begira, eta ingurumen-organoari dagokio azterketa hori egitea. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I. eranskinaren a) paragrafoa aldatuz, erkidegoko zuzentarauaren irizpidea sartu du dekretuak. Irizpide horren arabera, ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak eduki ditzaketen hirigintza-antolamenduko plan-kategoria guztiak utzi behar dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende, ingurumen-organoaren erabaki arrazoitu eta publikoaren bitartez. Plan horien artean, lurralde-eremu murriztuko tokien erabilera ezartzen duten planak edo plan horien aldaketa txikiak sartzen ditu.
5. Ondoren, 2001/42/CE Zuzentarauaren transposizioa berrikusi du Espainiako estatuak, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea onartuz. Lege horrek 9/2009 Legea baliogabetzen du.

21/2013 Legeak 6. artikuluan zehazten du zein den ingurumen-ebaluazio estrategikoa ezartzeko eremua, indarrean dagoena. Artikulu horren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren xede izango dira plan eta programa guztiak, baita horien aldaketak ere, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren mende utzi behar diren proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean, edo, bestela, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean aurreikusitako baldintzetan Natura 2000 Sareko tokiei eragiteagatik, ebaluazio bat behar dutenean.

6.2. artikulua ezartzen duenez, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren xede izango dira planen eta programen aldaketa txikiak edo hedadura murriztuko eremuen erabilera (udal-mailan) zehazten dutenak. Zehaztu beharra dago ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren xede izan ahalko direla plan txiki horiek, ingurumen-organoak kasu bakoitzaren gainean hala erabakitzen duenean, V. eranskineko ingurumen-irizpideekin bat eginez.





Ingurumen-araudiak bi prozeduretan eskatzen du ingurumen-organoaren erabakia egotea. Bai ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoak —17. artikulua eta hurrengoak—, bai ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuak —29. artikulua eta hurrengoan— behar dute plana onartzeko eskumena duen organo substantiboak hasteko eskaera eta horri dagozkion dokumentuak bidal diezazkiola ingurumen-organoari. Ingurumen-organoak, dokumentazioa eta izapideak onartu ondoren, ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatuko du, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa denean; aitzitik, ingurumen-txosten estrategikoa bideratuko du, ebaluazio sinplifikatua denean.

6. EAEko administrazioek kontuan hartu behar dituzte prozedurazko betekizun horiek, erkidegoko zuzentarauen ondorio zuzenarekin bat eginez eta abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotzen diren xedapen batzuetatik atera daitekeen oinarrizko legeriarekin bat eginez, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko maiatzaren 11ko 53/2017 Epaia terminoekin bat.

Adierazi beharra dago 21/2013 Legearen azken xedapenetatik hamaikagarrenaren arabera ingurumen-ebaluazioaren inguruan legeria propioa duten autonomia-erkidegoek lege horretan xedatutakoari egokitu beharko diotela legeria propio hori, indarrean jartzen denetik (2013ko abenduaren 12tik) zenbatzen hasita urtebeteko epean.

Ingurumen Sailak aintzat hartu behar du mandatu hori, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko xedapen aipatuak egokitzea sustatzeko. Bestalde, legezko beste xedapen batzuen egokitzapena ere kontuan hartu behar da; hala nola, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97.1. artikulua egokitzapena. Izan ere, hirigintza-antolamenduko plan bereziak oro har salbuesten ditu izapide horretatik, lehen aipatu diren legezko aurreikuspenak aintzat hartu gabe.

Gauzak horrela, uztailaren 16ko 1/2009 Zirkularra (Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamenduko Batzordeko presidentek onartu zuena) egokitze beharra aipatu behar da, hirigintza-planak onartzeko prozeduran ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura txertatzearen gainean informatzeko tartean dauden administrazioak.

7. Ingurumen-izapide hori ez egitearen ondorioak dagoeneko aztertu eta ebatzi izan dira Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia etengabe. Besteren artean, Auzitegi Gorenaren 2017ko ekainaren 29ko 2618/2017 Epaia aipa daiteke.





Bertan, berretsi egiten da planen aldaketak, berez, ingurumen-ebaluazioaren izapidearen mende egoteko betebeharra.

"Así, con carácter general (SSTS de 17 y 20 de febrero, y 8 de junio, de 2015, RRCC 1005/2013 , 1012/2013 y 2703/2013) dijimos que "tanto la Directiva del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de junio de 200, como la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas sobre el medio ambiente, imponen la sujeción de la modificación del plan impugnado en la instancia a la evaluación ambiental, es decir, a la conocida como evaluación ambiental estratégica. La citada Ley 9/2006, al trasponer la citada Directiva, introduce la evaluación ambiental estratégica relativa, por lo que hace al caso, a los planes, anticipando de este modo la toma de decisión ambiental, sin esperar a la realización del proyecto posterior. Esta exigencia no se limita al planeamiento general o a su revisión, sino que se refiere a los "planes y programas" en general, "así como sus modificaciones", según dispone el artículo 3 de la Ley 9/2006 citada y el artículo 2 de la Directiva 2001/42.

En relación con los planes menores o de reducido ámbito territorial, STS de 16 de junio de 2015 (RC 3575/2013) el artículo 4 de la Ley 9/2016 exige un análisis previo para determinar si es posible que el plan en cuestión tenga efectos significativos para el medio ambiente, puntualizando que la decisión que se adopte debe ser motivada, pública y adoptada previa consulta a las Administraciones sectoriales implicadas.

En síntesis, hemos de concluir con esta cita jurisprudencial en los mismos términos en que nos expresáramos en la STS de 4 de mayo de 2015 (RC 1957/2013), en la que, tras recordar el contenido del artículo 15 del Texto Refundido de la Ley de Suelo, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio (TRSL08), así como de los artículos 3 y 4 de la LEPP, concluíamos: "Así, pues, incluso, aun cuando se tratara de una modificación que pudiera considerarse menor, lo que tampoco ha sido acreditado, no deja de exigirse en todo caso el correspondiente pronunciamiento del órgano ambiental competente acerca de la innecesariedad de la evaluación ambiental.

Estas exigencias legales requieren ser observadas, lo mismo que cualesquiera otras vigentes al tiempo de la tramitación y aprobación de los planes urbanísticos".





Bestalde, Auzitegi Nagusiaren apirilaren 13ko 1652/2016 Epaiak zuzenbidearen araberrakotzat jo du hiri-antolamenduko plan orokorraren aldaketa bat ingurumen-izapide hori ez betetzeagatik deusez deklaratu izana. Honako hau dio epai horrek: *"se echa de menos el informe del órgano ambiental previsto en el artículo 4 de la Ley 9/2006. (...), la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana del Municipio de (...) habría precisado, conforme a lo establecido concordadamente en los artículos 3.3. y 4 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, y en el artículo 3, apartados 4 y 5, de la Directiva 2001/42/ CE, que el órgano ambiental determinase, consultando previamente a las Administraciones afectadas, si dicha Modificación debía ser objeto de evaluación ambiental, teniendo en cuenta los criterios establecidos en el anexo II de la propia Ley 9/2006 y de la indicada Directiva."*

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ere aztertu izan du prozedurazko betebeharrak hori. Ekainaren 22ko 372/2015 Epaian, Administrazioarekiko Auzien Salak erabat deusez deklaratu du hiri-antolamenduko plan orokor baten aldaketa puntual bat, arrazoi horregatik. Hona zer dioen: *"Aquí es relevante tener presente que el artículo 4.1 de la Ley 9/2006 establece que en los supuestos del artículo 3.3 de la misma y, en concreto, en este caso en relación con el apartado 2 sobre las modificaciones menores de planes, debe ser el Órgano Ambiental el que determine si en concreto la modificación debe ser objeto de evaluación ambiental, no constando que por el órgano ambiental se haya excluido en un supuesto como el presente, en los términos de la regulación que seguimos, en aplicación de los criterios establecido en el Anexo II de la Ley 9/2006"*.

Beraz, araudiaren eta aipatutako jurisprudentziaren arabera ondorioztatu beharra dago ingurumen-organoari dagokiola hirigintza-antolamenduko planen onarpenak ingurumenean ondorio nabarmenak eduki ditzakeen erabakitzea; kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagokio erabaki hori hartzea, ingurumen-arloko legerian ezarritako prozeduraren arabera.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Iradozikuna





Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamenduko Batzordearen aurrean zirkular berri bat egitea susta dezala iradokitzen dio Arartekoak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari. Zirkular horretan, hiri-antolamenduko planek eta horien aldaketek Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikuluan jasotzen den prozedura jarraitu behar dutela gogorarazi beharko da.

Zirkularrean, era berean, adierazi egin beharko da ingurumen-organoa dela, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren araudia ezarriz, ingurumenerako ondorio nabarmenak dauden ala ez zehazteko eskudun organoa.

Bestalde, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen dio susta dezala Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen- eta hirigintza-araudia 21/2013 Legean xedatutakoari egokitzea, bere eskumenen eremuan, hirigintza-planen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren betebeharrei dagokienez.

